



Gipuzkoako enpresa industrietan zibersegurtasuna sustatzeko programa.

III. Eranskina: ZIBER IKERKETA-GARAPENA.

Urtea :2019 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Zibersegurtasun arloko ikerketa eta garapena bultzatzea Gipuzkoako industria-ehunarentzat.

ENTITATE ONURADUNAK

Entitate onuradunak izango dira Gipuzkoan kokatuta egonik jarduera industrial hauetan dihardutenak: erauzketakoak, eraldaketakoak, ekoizpenekoak, horietako ekoizpen prozesuari lotutako zerbitzu teknikoetakoak, eta informazioaren eta komunikazioen gizarte arlokoak. Betebehar hori egiaztatzeko, oinarritzat hartuko da enpresaren jarduera nagusiaren jarduera ekonomikoen gaineko zergaren (JEZ) altako epigrafea. Epigrafe onargarrien zerrenda eskuragarri dago web orri honetan: <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/zibersegurtasuna>

Gipuzkoan kokatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakundeak.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz laguntzekoak diren jarduketak izango dira zibersegurtasun arloko ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuak.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkeztzen duen aurrekontu banakatu eta zehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zailentzen gabe lotuta daudenean.

- Langile-kostuak direnean, proiektuan emandako orden ziurtagiria aurkeztuko da.
- Langileen zuzeneko kostuak (erakunde eskatzailearen plantillako langileak: ikertzaileak, teknikariak, eta ikerketa-jardueran enplegatutako beste langile laguntzaile batzuk), proiektuan diharduten neurrian.
Proiektuari eskainitako orduen ziurtagiri bat aurkeztuko da.
Langileen zuzeneko kostuak hautagarritzat joko dira, 35 euro/orduko, gehienez. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko langileen zuzeneko kostuen kasuan, kostu hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko, gehienez.
- Kanpoko iturrien lizentziaren bidez lehia beteko baldintzetan eskuratutako kontratu ikerketako, ezagapenetako eta patenteetako kostuak, baita proiektura eskusiboki bideratutako aholkularitzako eta zerbitzu baliokideetako kostuak.

Proiektuari eskainitako orduen ziurtagiri bat aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarritzat joko dira, 69,29 euro/orduko, gehienez.



- ETEentzako jabetza industrialeko eskubideen kostuak.
- Kostu orokorrak edo zeharkakoak; zeharkako kostu gisa kontatuko da langileen zuzeneko kostu diruz lagungarrien % 15.
- Ustiapeneko gastuak, barne hartuta proiektutik zuzenean eratorritzen diren material, hornidura eta antzeko produktuen kostuak.
- Tresneria eta material kostuak, proiekturako erabiltzen diren neurrian eta bitartean; baldin eta tresneria eta materiala ez badira erabiltzen proiekturako haien bizitza baliagarri guztian, orduan, diruz lagungarritzat joko diren bakarrak proiektuaren iraupenari dagozkion amortizazio kostuak izango dira, oro har onartutako kontabilitate printzipioen arabera kalkulatuak.
- Ez dira hautagarriak izango 400 eurotik beherako kostuak.
- Ez dira kostu hautagarriak izango onuradunarekin lotura duten pertsonen edo erakundeen dagozkienak, salbuespen hauekin:
 - Merkatuko baldintza arruntan arabera egiten denean; eta.
 - Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuaren baimena lortzen denean, oinarri arautzaile zehatzetan adierazitako moduan

DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Hauek izango dira ezarritako laguntzak:

Ikerketa industrialeko proiektuetan, diruz laguntzekoak diren kostuen %50.

Garapen esperimentaleko proiektuetan, diruz laguntzekoak diren kostuen %25.

EMATEKO PROZEURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Ezarritako diru laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –izan Estatukoa, izan Europar Batasuneko, izan nazioartekoa– helburu berarekin eman litzakeen beste subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin; gehienez ere, Kategorien araberrako Salbuespen Erregelamendu Orokorreko araudian ezarritakoraino (651/2014 zk.).

BETETZEKO EPEAK

- Eskerak aurkezteko epea: **2019ko maiatzaren 13an, goizeko 12:00etan amaituko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **diru laguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**
- Proiektuen exekuzio data: **2020ko maiatzaren 13a.**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2020ko ekainaren 13a.**

ARAUDI APLIKAGARRIA

“Gipuzkoako enpresa industrialetan zibersegurtasuna sustatzeko programa”ren 2019ko deialdia



(2019ko martxoaren 20ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. GAO 62 zk. 2019ko apirilaren 1ean).

Oinarriak 2018-06-12ko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz onartu ziren (GAO 2018/120 zk.) eta 2019-03-20ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz aldatu dira (GAO 2019/62zk.).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/zibersegurtasuna/zibersegurtasuna>

- Diru-laguntzak kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENeko ZERBITZUA

- Kudeaketa teknikoa: 943.112217/ 943.112216

zibersegurtasuna.laguntzak@gipuzkoa.eus